



1. U.D OINARRIZKO KONTZEPTU BATZUK

1. HEZKUNTZAREN DEFINIZIOA

2. ZER DA ESKOLA

3. ESKOLA MOTAK

4. ESKOLA ALTERNATIBOA

5. ESKOLA INKLUSIBOA



1.-HEZKUNTZAREN DEFINIZIOA

Hezkuntza ezagutzak, baloreak, ohiturak eta jokatzeko moduak transmititzen dituen bi norabideetako gizarte-prozesua eta horren emaitza da. Hezkuntza **sozializazio** eta kontzientizazio kultural, moral eta konduktualaren prozesu bezala ere uler daiteke. Horrela, hezkuntzaren bidez, belaunaldi berrietako gizabanakoek aurreko belaunaldikoen ikuspuntuak, jokamoldeak eta ezagutzak *ikasi* edo bereganatzen dituzte, horiek une historikora edo kulturalera egokituz.

HEZKUNTZAREN HELBURUAK

Gure hezkuntza sisteman, hasierako hezkuntzaren helburua honako hauek dira:

- Pentsamenduaren egituratze prozesuaren, sortzeko gaitasunaren, espresio pertsonalaren formen eta ahozko komunikazio eta komunikazio grafikoaren prozesua sustatzea.



- Sentso-motorran, aldarrikapen ludiko eta estetikoan, kirolean eta arteetan, hazkunde sozio-afektiboan eta balore etikoetan haurren hazkunde prozesua laguntzea eta hobetzea.
- Integrazio sozialean, taldeko elkarbizitzan, solidaritatean eta kooperazioan, eta ingurumenaren kontserbazioan ohiturak estimulatu.
- Hezkuntza instituzio eta familiaren arteko lotura indartu.
- Desberdintasun fisiko, psikiko eta sozialak aurreikusi eta hauetaz arduratu. Hauek orden biologiko, nutrizional, familiar eta ingurumenean oinarrituak egoten dira.

2.-ZER DA ESKOLA

Hezkuntzan eskola edo ikastetxea ezaguerak irakatsi eta ikasten diren erakundea da, non irakasleek ikasleei irakatsi eta ikasleek ikasi egiten duten. Terminoa hezkuntza sistema baten barnean eta pertsona guztientzat derrigorrezkoak diren erakundeak izendatzen ditu, hala nola lehen hezkuntza edo bigarren hezkuntzako eskolak. Zabalago, hezkuntza maila guztietan aplikatzen den terminoa da: haur eskola, helduen eskola eta baita unibertsitateko ikastetxe zenbaitetan ere. Hezkuntza sistematik kanpo ere autoeskola, musika-eskola, hizkuntza-eskola eta hezkuntza lana egiten duten beste erakunde guztiak izendatzen ditu. Euskal Herrian, **ikastola** terminoa ere erabiltzen da lehen eta bigarren hezkuntzako mailetan irakaskuntza euskaraz eskaintzen duten ikastetxeei.

Ikastola: lehen eta bigarren hezkuntza euskaraz ematen duen Euskal Herriko eskola autonomoa da. Kalitatezko hezkuntza eskaintzea, eta euskara nahiz euskal kultura sustatzea ditu helburu. Garaiko mugimendu politiko eta intelektualaren fruitua ikastolaren jaiotza izan zen: 1914an ernatu zen, M. Muñoak, Donostian Koruko Andre Mariaren Ikastetxea sortu zuenean, lehen ikastola izan zena. baita Azkuek ere; honek 1896an bere Ikastetxea ireki zuen. Bizkaiko Foru Aldundia Estatuak betetzen ez zituen beharrianak betetzen ahalegindu zen eta 125 auzo-eskola sortu zituen 1920-1932 bitartean, euskara aintzakotzat hartzen zutenak.



Euskal Herrian, 1993 an Euskal herriko hezkuntza publikoaren legea baieztatu zenetik, ikastola batzuk publika sarean sartzea erabaki zuten beste batzuk ordez, gaur arte, pribatuak izaten jarraitzen dute.

3. ESKOLA MOTAK

Irizpide anitz jarraituz sailka daitezke eskolak. Eskola publiko eta pribatuen bereizketak eskolaren antolakuntzari eta gizartean txertatzeko moduari zuzenean erasaten dion irizpidea da.

Eskola publikoa estatuak edo komunitateak haur guztientzat antolatzen duen eskola da, dohainik (estatuak hartzen baitu bere gain hezkuntzaren kostua) eta gehienetan haurren arteko bereizketarik egin gabe, mailaz mailako sailkapenaren salbuespenarekin. Eskola publikoaren bitartez haurren hezkuntzarako duten eskubidea eta haur guztien aukera berdintasuna bermatzen bada ere, estatuak hezkuntza kontrolatzeko tresna moduan ere erabiltzen du eskola publikoa. Beste alde batetik, eskola pribatuek nahi dituzten ikasleak bakarrik onartzen dituzte, gurasoek hezkuntzaren kostua hartu behar dute bere gain eta estatuarekiko mendekotasun txikiagoa dute, antolakuntzan askatasun zabala badute ere, legeztatuak izateko estatuak ezarritako arauak errespetatu behar baitituzte, batez ere hezkuntzaren mailakaketa eta irakatsi beharreko jakintzagaiei buruz.

.Beste alde batetik, herrialde batzuetan, Euskal Herrian kasu, eskola **kontzertatuak**, (hitzarmendunak, itunpekoak) ere badaude, non, pribatuak izan arren estatuarekin egindako hitzarmen baten bitartez estatuak hezkuntzaren kostua bere gain hartzen duen. Ikastetxe bakoitzak haren hitzarmena du Eusko jaurlaritzarekin, eta hori dela eta, ikasleen onarpena EJ-GVk kontrolatzen du.

Eskola horiek forma juridikoa ezberdina dute: enpresa pribatu hutsak dira edo familien kooperatiboak.

Familiek diru-kopurua ordaindu izan arren, derrigorrezko hezkuntza dohain izan behar da. Irakasleak ikastetxeak kontratatzen du, baina soldata EJ-GVk ordaintzen du.



Aldi berean, aparteko ahalmenak, ezintasunak dituzten haur eta pertsonentzako hezkuntza berezitua eskaintzen duten eskolak ere badaude, (APNABI: Aldamiz eskola,; ASpace: Elgero eskola, Loiu eskola, San Inazio eskola.)

Erlijioa eskolan: Historian bezala, eskola eta beste hezkuntza erakunde asko erlijio-ordenen eskuetan daude. Eskola erlijiosoen alternatiba moduan, non haurrei fede erlijioso jakin batean hezi edo txertatzen diren, erlijiorik gabeko eskola laikoa sortu zen. Eskola laikoek erlijioaren heziketa erabaki pertsonala eta familian izan behar dela aldeztu dute, eskola eta hezkuntza eskubidea guztientzako eta guztientzat berdina izan behar dela argudiatuz. Hain zuzen, eskola erlijiosoak pribatuak izaten dira eta herrialde modernoetan eskola publikoak laikoak izaten dira. Eskolan erlijioa irakastearen aurka, haurren askatasuna eta autonomia morala eta eskolak jakintzagai zientifiko eta humanistak soil-soilik, erlijioak eskaintzen dituen sinesmenetatik at, eskaini behar dituela aldarrikatu dira.

Beste irizpidea jarraituz, **landa-eskolak eta hiriko eskolak** bereizten dira. Landa-eskolek ezaugarri bereziak dituzte, hezkuntza mota nabarmen erasaten dutenak. Alde batetik, ikasle-kopurua hain da txikia, non askotan ez du mailaz mailako zatiketa ahalbidetzen ikasle guztiak; eskolaz kanpo ere ikasleek harreman sendoak izaten dituzte beraien artean eta horrela eskolako elkartasuna ere sendoagoa da; azkenik, landa-eskola hirian baino modu nabarmenago batez txertatzen da herri txikietan eta kultura-erreferentzia nagusi bilakatzen da .

4.-ESKOLA ALTERNATIBOA

Eskola ofiziala kritikatu egiten duten pedagogoak eta hezitzaileak anitz dira, baina ez horrenbeste kritika hau praktikan jarri eta eskola alternatiboak eratu dituzten ekimenak. Alternatiba sinpleena haurra etxean bertan hezitzearena edo etxeko eskolatzea da, nazioartean ingelesezko "homeschooling" izenez ere ezaguna, lehen eta bigarren hezkuntzan hainbat herrialdeetan legez kanpo dagoena, baina Estatu Batuetan esaterako milioi batetik gora haurrek jarraitzen dutena. Etxean bertan heitzeko arrazoika anitz dira: guraso zenbaitek arrazoi erlijiosoengatik soilik hezitzen dituzte etxean, beste batzuek pedagogia konbentzionalaren eta eskola-sistemaren



aurka daudelako eta beste batzuk halabeharrez, toki isolatuetan bizi eta beste aukerarik ez dutelako. Ohartu behar da, etxe eskolatzea askotan urrutiko hezkuntza sistema baten bitartez laguntzen dela, tutoretza edo gidaritza moduan.

http://eu.wikipedia.org/wiki/Etxeko_eskolatze

Etxeko eskolatze

<http://www.hikhasi.com/artikulua/1433>

Eskola ETXEAN: Erreportaia: <https://www.youtube.com/watch?v=pqrKEUadzco>

Eskola etxean: elkarrizketa telebistan

<https://www.youtube.com/watch?v=-5qSPQ3aonM>

Bideoa: Escuelas fuera de las escuelas

Pedagogia berritzaileen artean, eskolak sortzean zabalkuntza handiena izan duena Waldorf hezkuntza da. Waldorf eskolak mundu osoan daude zabaldurik eta 2010 urtean ia mila ziren Waldorf eskola independenteak mundu osoan, Waldorf metodoak jarraitzen dituzten eskola publikoak eta joera horretako etxeko eskolatzeak kontuan hartu gabe. Waldorf eskolak haur bakoitzaren garapen pertsonalaren erritmoarekin egiten du lana, haurren esperientzian zentratuz eta ikasketa sormenean oinarrituz. Ezaugarri konkretu moduan, Waldorf eskolek testulibururik ez dutela erabiltzen aipatu behar da, lehen hezkuntzan behintzat, ikasleak ikasten duena bera osatzen joaten baita koaderno batean. Jostailuetan ere sinpletasuna bilatzen da, haurren sormena pizteko. Beste pedagogia batzuek hasiera batean eskolak sortu bazituzten ere, azkenean eskola ofizialetan integratuak izan dira, neurri batean behintzat, Maria Montessoriren pedagogia esaterako.

[Maria Montessori](#)

Paulo Freire: [hik hasi](#)

[Sumerhill informazioa](#)

Waldorf: [Geroa eskola](#)



5 . ESKOLA INKLUSIBOA

Gizartean eta eskoletan -eskolak gizartearen parte diren aldetik- **aniztasunari nola erantzun behar diogun zehazten du inklusio kontzeptuak**. Praktikan, hezkuntza-erantzunaren ardatza aldatzea dakar:

Eskola inklusiboa definitzeko, hezkuntza inklusiboaren aldeko zenbait egileren definizioa erabiliko dugu, hain zuzen ere, Ainscow, Booth eta Dysonena (2006) eta Echeita eta Dukena (2008): "Haur eta gazte guztiek hezkuntza jasoko dutela bermatzen du eskola inklusiboak; ez, ordea, edozein hezkuntza, kalitatezko hezkuntza baizik, guztiei aukera berak emango dizkiena.

Ikasle guztiek hezkuntza jasotzeko eskubidea izatea bermatzea dakar hezkuntza-inklusioak, eta hezkuntza-bereizkeria eta -bazterketa oro gainditu behar da horretarako.

honako baldintza hauek bete behar ditu eskola inklusiboak:

- Ikasleen aniztasuna aintzat hartzeko hezkuntza-egitasmo bat izan behar du, ikastetxeko kulturak, politikak eta jardunak kontuan hartuko dituenak.

- Eraiki behar dugun eskola-komunitateak abegikorra, laguntzailea eta bizigarria izan behar du, eta ikasleen gaitasun eta ahalmen guztiak balioetsi behar ditu, hori baita eskola-arrakastaren oinarria.

- Pertsona bakoitzaren behar sozialei eta hezkuntza-beharrei erantzun behar die.

.Oztopoak gainditzeko konpromisoa hartu behar dugu, ikasle guztiek hezkuntza jaso, eskolan parte hartu eta ikasi ahal dezaten, eta ahaleginak egin behar ditugu ikastetxeek ikasleen aniztasunari erantzuteko dituzten oztopoak gaindi ditzaten.



- Ikasle guzti-guztiak bultzatu behar ditugu ikasteraeta parte hartzera, batez ere, gizarte-egoera ahuleko ikasleak, sexuagatik, erlijioagatik, kulturagatik edo etniagatik baztertuak izateko arriskua dutenak.
- Hobekuntza-planak gertu izan behar ditugu eskola-instituzioarentzat, irakasleentzat eta ikasleentzat inklusiorako bidean aurrera egiteko.
- Ikasleen aniztasuna balioetsi behar dugu, eta pertsona guztiei lagundu behar diegu ikasten. Izan ere, aniztasuna ez da arazo bat; aitzitik, aberasgarria da.
- Ikastetxeek eta bertako komunitateek elkarri lagundu behar diote.
- Kontuan hartu behar dugu proiektu hori beharrezkoa dela gizarte inklusibo bat eraiki nahi badugu.
- Ikasgela barruan laguntza antolatu eta jaso behar dugu, ikasle bakoitzaren eta guztien beharrei erantzuteko.

Laburbilduz, ikasle guztientzako kalitatezko hezkuntza bidezkoa eta justua eraikitzen laguntzeko konpromisoa eta jarrera dakartza hezkuntza inklusiboak.

Haur eta gazte guztiekin du lotura. Inklusioa prozesu jarraitua da. Prozesu horren bidez, haur eta gazte guztiek, bazterkeriarik gabe, eskolara joan ahal izatea, eta eskolan parte hartzea eta arrakasta izatea lortu nahi dugu. Arrakasta zenbatekoa den jakiteko, emaitzak aztertu behar dira, noski